

Elikagaien Bilketa Handia 2013



DADeko bazkide guztiak animatzen ditugu laguntzera, Gipuzkoan edo Estatuaren gainerakoan ezarritako lekuren batean ahal duten ekarpena eginez.

Estatu mailako Kanpaina da.

"Elikagaien Bilketa Handia" FESBAL-Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioaren ekinbide bat da, Espainiako Elikagaien Banku Guztiek eta egun berberetan egingo duguna: **azaroaren 29an eta 30ean.**

Elikagaiak biltzeko kanpaina berezi edo ezohikoa egin nahi da.

Berezia da elikagaiak biltzeko beste kanpaina batzuetan ezohikoak diren merkataritza-zentroak ere sartzen direlako orain, eta ahalegin guztia 2 egunetan bilduko delako.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak aurreko urteetan ez du bat egin ekinbide honekin, bere ekonomia- eta giza baliabide mugatuek ez ziotelako horretarako aukerarik ematen. Kontuan izan behar da bankuan lan egiten dutenak **boluntarioak** direla eta astia dutenean urte osoan aritzen direla jarduera honetan, eta beraiek direla zuek supermerkatuetan ikusten dituzuenak ere Bankuak urtero abian jartzen dituen **ohiko kanpainak** egiten.

Aurten, premiak gehituz doazela ikusirik eta boluntario berriak sartu direla aprobetxatuz, parte hartzea erabaki dugu.

Erabaki hau hartzea ez da batere erraza izan. Probintzia osoko **56 zentrotan** egon nahi dugu, eta horrek esan nahi du **30en bat herritan** egotea.

Argibide gehiago: **www.bancoalimentosgipuzkoa.org**